



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

16. Alea 1998ko Urtarrila



GEILAOTARREK ARETXABALETAR IZATEKO ESKARIA AUKEZTU DUTE UDALETXEAN

- TUBERIA KOLEKTOREAREN OBRAK
- 1998 RAKO UDALETXEAK EGINGO DITUEN INBERTSIO NAGUSIAK

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale


“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

**AZKOAGA
 ESTANKOA**

Zure Zerbitzura

NARCISO PAVO PAJUELO
Eskoriatzako futbol-sala entrenatzailea

- 1- Noiztik zara entrenatzailea?**
 Orain dela 7 urte hasi nintzen, baina lehenengo 3 urteetan jokalaria eta entrenatzailea izan nintzen.
- 2- Eta Eskoriatza taldean?**
 3 urte.
- 3- Ze espero duzu denboraldi honetarako?**
 Aurten gazte asko etorri da eta ez nekien zelan erantzungo zuten, baina azken 4 partiduetan 2 irabazi ditugu eta 1 berdindu eta konfidantza hartzen ari gara. Gerora gauza handiak lortu ditzakegu.
- 4- Zenbat talde daude Eskoriatzan?**
 2, nik eramaten dudana (ohorezko liga) eta jubenila.
- 5- Jokalari guztiak Eskoriatzakoak dira?**
 Nire taldean bai, baina jubeniletan Aretxabaletako bat eta Arrasateko bat daude, biak atezainak.
- 6- Non entrenatzen duzue eta zer moduz dago?**
 Kiroldegi berrian eta egoera ezin hobean.
- 7- Jende asko joaten da ikustera?**
 Bada, gehiago izan zitezkeen... Dena den, emaitza onekin jarraitzen badugu jende gehiago etortzea espero dut.
- 8- Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?**
 Kirolekin zerikusia duten gauzetan.
- 9- Zer aldatuko zenuke alkatea bazina?**
 Kirolari gehiago lagundu eta gazteentzat aukera gehiago bilatu.
- 10- Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**
 Ondo, ez dut asko ulertzen baina irakurtzen dut. Eskoriatza hobetzeko edozein ekimen iruditzen zait interesgarria.



1- Zer moduz dago igerilekua?
2- Zerbait nabaritzen duzu faltan?



1- Pello Urreta

- Ondo, igerileku majua da.
 -Nik ez.



4- Iñigo Izagirre

- Benetan ondo dago, Aretxabaletakoa baino hobeto.
 - Sauna txiki xamarra da, minusbalituentzako jarritako erraztasunak oso ondo daude.



2- Karlos Azkarate

- Ondo, baina etorri egin behar da ikustera.
 - Musika.



5- Manuel Angel Molina

- Ondo, baina leku gutxi dago.
 - Musika eta tranpolin eder bat.



3- Txomin Urzelai

- Ondo baino hobeto, hau da Eskoriatzan falta zen gauza, udalak aspaldian egin duen gauzarik onena da.
 - Ez, momentu honetan ez.



6- Amaia Gurrutxaga

- Oso ondo dago, primeran.
 - Ez, denetik dauka.



INTSUMISO EGUNA

Otsailaren 28an 3. intsumiso eguna ospatuko da . Goizean kotxe karabana eta etxafleruak , ondoren intsumiso poteoa eta gero bazkari herrikoia (baba gorriak, noski) bertsolari eta guzti. Arratsaldean poteoarekin jarraituko dugu. Gauean musika taldeak egongo dira tabernetan, oraindik ez dakigu zeintzuk baina onak izango dira. Joan zen urtean giro ona egon zen, ea aurtengoa hobea izaten den. Antolatzailea: Eskoriatzako talde antimilitarista.

TUBERIA KOLEKTOREAREN OBRAK

Eskoriatza eta Aretxabaleta herrietako ur zikinak batzen dituen tuberia kolektorearen obrei laster ekingo zaie. Lehenengo Aretxabaletan egingo dituzte konponketak eta poliki-poliki Eskoriatzaraino iritsiko dira.

Udalak, bide batez, kolektorearen obra hauek aprobetxatu gura ditu, bidea jasotzen denean bertatik doazen telefono kableak eta gas instalazioak ere behar bezala jartzeko. Gainera, obrak bukatzean bidea eta baita espaloia ere txukuntxukun jarriko dira, beharra badute eta. Eskoriatzako alde historikoan (erdiko kalean) adokinak jarriko dituzte tramo labur batzuetan, bertatik autoak abiadura motelagoan pasa daitezten.

Hainbat lekutan bidea moztu beharra egongo denez, herrian eragozpenak sortuko ditu. Baina ezpairik gabe oso obra garrantzitsua da herriarentzat, eta beraz, pazientzia apur bat eduki beharko dugu konponketek irauten duten bitartean.



GANBERROKEIXAK GABONETAN

Pasa berri diren Gabon Jai hauek ez dira ahazterrezak izango askorentzat, batez ere zenbait ezezagunek Ikastolan eta Irakasle Eskolan egindako apurketa eta aldrebeskeriak konpondu behar izan dituztenentzat.

Gabon gabian zihar, zenbait ezezagunek, kaleko zabor bilketarako kontenedore batzuk hartu eta Irakasle Eskolako sarreran hustu zituzten barruko hondakin guztiak, oportetarik bueltan bertara lan egitera bueltatu zirenen gozamerako.

Baño hau ez da Gabon hauetako opari bakarra izan, Errege gabian zehar, Beste bazter nahastaile kuadrila bat Jose Arana-Almen Ikastolako lehioak apurtu eta barrura sartu zan, eta bertan zeuden zenbait umeentzako jostailu eta tresna hartu eta kanpoan apurtu zituzten. Egia esan, batzuek ondo pasatzeko nahiko era arraroak dituzte.

AITZORROTZEN INGURUNEA EDERTZEKO URRATS BERRIAK EMANEZ.

Udaletxeak bi hektarea inguruko lursaila erosi berri du Aitzorrotz inguruan. Bertan, zuhaitz mota ezberdinak landatuko dira, inguru hura atsegina egingo duen parkea eraikitzeko. Papelerarekin akordio bat sinatzekotan da Eskoriatzako udala eta behin hori eginik, lursail horretan dauden pinuak kenduz, Aitzorrotz ingurunea edertzeari ekingo diote.

Proiektu honetarako udalatxeak miloi bateko inbertsioa egitea erabaki zuen hil honetako bileran.




GELLAO ARETXABALETAKO AUZO IZATEKO PAUSUAK EMATEN



1997ko abenduko Ze Barri?-ren alean idatzi genuenez, Gellaoko bizilagunek eskoriatzar izateari utzi eta Aretxabaletako auzo izateko gogoia agertu dute. Abenduaren 30ean sarrera eman diote eskaria osatzen duten txosten eta agiriei, eta honen berri emango dizuegu ondoren. Eskaria Gellaoko pertsona nagusi guztiek sinatu dute.

• ESKARI TXOSTENAREN LABURPENA • HISTORIA

1.630. urtean Leintz Bailara bi herritan banatzea erabaki zutenean, irizpide moduan Gurutzeberrietik Murumendira doan zuzen imaginarioa hartu zen muga moduan, baina azkenean salbuespen batzuk egin ziren, horien artean Gellao. Orduetik, administratiboki Eskoriatzara loturik egon arren, geografikoki eta sentimenduz Aretxabaletara loturik egon da.



JESUS MARI OTXOA (GELLAOKO AUZO ALKATEA)

Noiz hasi zineten banaketa prozesua hastea pentsatzen?

- Betidanik egon da Gellaon Eskoriatzatik banatu eta Aretxabaletara bateratzeko gogoia, baño orain 3 hilabete dela hasi giñen gauza seriooki pentsatzen.

Zerk bultzatu zaituzte erabaki hau hartzera?

- Arrazoi nagusia Eskoriatzako Udalarik indako hainbat eskaeretan jaso degun tratamendua izan da. Auzorako argiteria jarri, ur horniketa in edo aparkaleku egoki bat bezelako eskaerak egin ditugu, eta Udaletik beti baikoa jaso degun arren, proiektu hoiak inoiz ez dira aurrera eramane. Hortaz aparte, geure eguneroko bizitza Aretxabaletan egiten dugu, bertara joaten gara erosketak egin edo ta medikuarengana, eta Eskoriatzara botatzera joaten gara bakarrik.

Zer moduzkoa izan da Eskoriatzako Udaletxiarekiko harremana?

- Erlazioak onak izan dira beti, bai Udaleko ordezkariekin, bai elizateetako batzordeburuarekin, baita baseritarren ordezkariarekin ere, baño arazoa geure eskaerei erantzunik ez ematea izan da.

Zeintzu dira orain banaketarako eman beharko diren pausoak?

- Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalek 4 hilabetetako epea dute orain banaketari buruzko bere postura azaltzeko, eta gero azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du. Guk Aretxabaletako Udaleko ordezkariekin zenbait bilera izan ditugu eta hauek gu onartzeko prest daudela esan digute.

Zer egin dezake orain Eskoriatzako Udalak Gellaorekiko? Ezezkorik eman al dezake?

- Eskoriatzako Udalak kontrako postura artu arren, azken erabakia Diputazioak emango du, Eskoriatzak Diputazioaren erabakia onartu beharko du, eta baita geuk ere.

Zelakoa izan da orain arte Eskoriatzako Udalak zuenganako erakutsi duen postura?

- Ez dirudi oso pozik daudenik banaketaren kontuarekin. Batzorde bat eratuko omen dute gaia jarraitzeko, baño Diputazioak bere erabakia eman arte itxaron beharko da.

Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.


Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 **kutxa** fundazioa
fundación



KOMUNIKABIDEAK

Aretxabaletatik Gellaora doan errepidea bertan egon den inbertsiorik haundiena izan da: 18 miloi. Hau egiteko orduan, Eskoriatzako udalak lagundu egin beharrean trabak ipini zituen.

DISTANTZIAK :

Bidea	Km	Denbora
Gellao (Aretxabaleta)	2,2	2' 30"
Gellao (Aretxabaleta (Eskoriatza)	5,7	7'
Gellao (Apotzaga (Eskoriatza)	5,2	12'

Ura, argia eta telefonoa eramateko ere, hobeto dago Aretxabaletatik. Orain arte Eskoriatzak ezer ere egin ez duenez baserri bakoitzak ahal izan duen bezala konpondu du arazoa, eta beti Galartzarekin erlazionatuz, Apotzagarekin beharrean.

ZERBITZUAK

Gaur egun gellaotar gehienek kanpoan egiten dute lan, inork ez Eskoriatzan.

Osasuna: Aretxabaletako anbulategian.

Posta: Aretxabaletatik banatzen denez, "20550-Aretxabaleta" jarri behar izaten dute.

Banku, Aurrezki Kutxak: guztiak Aretxabaletan daukate kontu korrontea.

Komertzioa: eguneroko erosketak Aretxabaletan egiten dituzte.

Eskoriatzarekin dagoen harreman bakarra zergen ordainketan eta hauteskundeetako botua emateko orduan izaten da.

BANAKETA PROPOSAMENA

Muga Gellao eta Apotzagaren arteko Basagoiti izango litzateke.

Eskubide edo zorrei dagokionez ez dago inolako arazorik, ez delako inbertsio haundirik egin eta esan ere esan daiteke auzoak Eskoriatzari emandakoa eta Eskoriatzak Gellaori emandakoa antzerakoa dela. Ondareari dagokionez, Gellaon ez ei dago ondare probetxagaririk.

JUAN CARLOS BENGUA (ELIZATEAK BATZORDEKO ARDURADUNA)

Gellao elizateko biztanleek Eskoriatzatik irten eta Aretxabaletan sartzeko aurkeztu duten txostenari buruz azterketa sakonago bat egingo dugu, baina orain azalpen labur bat egin nahi nuke.

Gellaotarrek eskoriatzar baino gehiago, atxabaltar sentitzen direla esaten dute. Gellaon erroldatuta dauden 10 baserrietatik 5 atxabaltarrek erositakoak edo eginikoak dira, beste bi Arrasatekoak direla esan dezakegu, eta betidanik gellaotarrak direnak, hiru baserri edo familia dira, bakarrik. Beraz, gehienak atxabaltarrak badira, normala atxabaltar sentitzea.

Azpiegiturei begira, ura, saneamendua, errepideak, etab. kontutan hartuz gero Gellao Eskoriatzako Udalak ahaztuta daukan auzo bat dela diote. Nik 1991. urtean Eskoriatzako Elizateen Udal Batzordearen ardura hartu nuenetik, Gellao elizatekoen eskabideak beste elizateetan sortutakoekin batera eztabaidatu dira. Adibide bat jartzekotan, esan dezakegu Gellaoko kanponsantua konponduta dagoela, eta Mendiola eta Zarimutz elizateetakoak, beriz, oraindik berritatu gabe daudela. Gainera, eskaera hau ekarri duen ur horniduraren atzerapenaren erantzunkizuna Aretxabaletako Udalarena ere bada neurri haundi baten, eta egongo da hori adierazteko aukera.

Dena den, ez dut ulertzen Gellaon etxeak egin edo baserriak konpondu dituzten atxabaltar eta kanpotar hauek, nola ez diren konturatu orain arte Gellao Eskoriatzako Udalak ahaztutako auzo bat dela. Ez dira bada baserriak gizarajo batzuk!, Eskoriatzako Udalak ahaztuta eta marginatuta duen auzo honek zer eskeintzen zion jende honi bertara bizitzera joateko?; Agian Aretxabaletako auzoetan, baserriak bizi ezik, etxebizitzarik egitea debekatuta zegoela eta Eskoriatzak aukera hori ematen zuela?.

Azkenik, Aretxabaletako zerbitzuak erabiltzen dituztela adierazten dute: osasun zentrua, posta, kutxa edo banketxeak, komertzioa, etab.. Osasun zentroa izan ezik, Mendiolako biztanleek ere Aretxabaletako zerbitzuak erabiltzen dituzte, eta ez da sekula Aretxabaletan sartzeko ideiarik sortu. (Ez dezala honek mendiolarrengan idea bera sortarazi, bestela ni ere banoa eta Aretxabaleta- "El Dorado"ra). Aramaio herriak ere, Arabakoa izanik, Gipuzkoakoa izatea eskatu beharko luke, bere bizia, lana, komertzioa, hezkuntza, etab. Arrasaten egiten duelako?.

Ulertzekoa izan daiteke "gellaotarren" eskabidea, baina hortik txostenean agertzen diren argudioak onartzera, Gellaotik Eskoriatzara dagoena baino bide luzeago dago. Nik egin nahi ez dudana bide luze bat.

**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 715061

VILLAR**ILEAPAINDEGIA**

Tfnoa.: 71 50 42

SKY IRTEERA

Urtarrilaren 17 eta 18an Luz Ardidenera joan ginen eskiatzera eta beti bezala oso giro polita egon zen. Larunbatean oso eguraldi ona eduki genuen , domekan ordea ez, baina elurra oso ondo zegoen eta primeran pasatu genuen . Jendea animatzen bada, hauek izango dira hurrengo irteerak:

Otsailaren 7 eta 8an

Otsailaren 28 eta martxoaren 1ean

Martxoaren 14 eta 15ean

Argazkian afaria Luzen



KINTOAK

Kintoak hasi dira dantzak ikasten. Aurten 88 dira, frontoi zaharrean harrapatu ditugu eta argazki bat atera diegu. Gogoratu otsailaren 3, 4 eta 5ean irtengo direla.

FUTBITOA

Urtarrilean hasi da futbito txapelketa. Lau partidu jokatu dira eta taldeak pare parean daude. Partiduak zapatu arratsaldean eta domeka goizean jokatzen dira Luis Eceizan .

Argazkian Hi Txo taldea, Ze Barri aldizkarikoen ustez, faboritua.



GUGGENHEIM

Urtarrilaren 21ean Eskoriatzatik 2 autobus joan ziren museoa ikustera. Dena oso polita dela esan digute . Aukerarik baduzu, ez bi bider pentsatu eta joan ikustera .

1998 RAKO UDALETXEAK EGINGO DITUEN INBERTSIO NAGUSIAK:

Hilaren 8an ospatu zen batzarrean erabaki zuten udaletxean urte honetarako zenbateko inbertsioak egingo dituzten. Udaletxeak izango duen presupuestua honako kriterioetan oinarritzen da batez ere: alde batetik, urteroko gastu arruntak eta bestetik subentzioak IPCaren %2a. Guztira, seihun eta hamar miloi inguruko presupuestu batetik abiatuz, besteak beste hauek izango dira egingo diren inbertsio nagusienak:

Inbertsioa	KOSTUA	Inbertsioa	KOSTUA
Lorategi berriak:	1.000.000	Polikiroldegia	2.000.000
Elizateetako bideak konpontzea	1.000.000	Olaeta-frontoiko argiak	200.000
Ura elizateetara	47.000.000	Polikiroldegiko altzariak	2.200.000
Dorletako urbanizazioa	30.000.000	Fondo Bibliografikoak (liburuak...)	768.000
Liburutegiaren egokitzapena	2.5000.000	Industrialderako prestamua	100.000.000
Pilotalekua	3.000.000	Hezikideri prestamua	25.000.000
Kanposantua	30.000.000		

BEKAK

• Austria, Belgika, Frantzia, Irlanda, Italia, Alemania, Erresuma Batua eta Estatu Batuetako erdi mailako zentruetan lan egiteko gaztelaniako mintza laguntzaileentzako dirulaguntzak. Epea: otsailak 10.

LANA

- Donostiako Udal Patronatuak, lau hizkuntz normalizatzaile eta laguntzaile lanpostu bat kaleratu ditu. Epea: otsailak 2.
- Arrasateko Udalak, udaltzain laguntzaile lanpostu eratzeko deialdia egin du. Epea: otsailak 2.
- Arrasateko Udalak, zerbitzuetako ikuskatzaile bat eta bi administrari laguntzaile (postu bat elbarrituentzako) behar ditu. Epea: otsailak 5.
- Osakidetzak, hainbat lanpostu kalera tu du:
 - Administrari laguntzaileak, zeladoreak, erizain laguntzaileak eta erizainak. Epea: otsailak 2.
 - Administrari eta erdi eta goi mailako titulodunentzat epea: otsailak 7.
 - Teknikari espezialista eta emagin postuetarako epea: otsailak 8.
 - LHII informatikoa eta goi mailako informatikarientzat epea: otsailak 9.
- Arrasateko Udalerako, bitartekotasun lan erregimenaz, zuzenbidean lizentziatu bat behar da. Epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zain geratzen da.
- Aretxabaletako Udalerako hirigintzako erdi mailako teknikari bat behar da. Epea: BOEn argitaratu zain.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak, gizarte zerbitzuen gestio teknikaria, programa espezializatuen gestio teknikaria eta kontratazio eta aurrekontu gestiorako teknikari lanpostuak bete nahi ditu. Epea: BOEn argitaratu zain.

IKASTAROAK

• Arrasateko ICTEren eskutik, Alzheimer gaixoen zainketaarako ikastaro espezializatua. Epea: urtarrilak 29.

AZOKA:

- Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135
- Irailtik aurrera neska bat pensio osoan hartuko duen familia behar da. Ikaslea 797473

Ze Barri?n informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko buzoian, Ze Barri?rako dela zehaztuz.

LEHIAKETAK

- Laguardiako Udalaren eskutik, IV. dokumental eta fikziozko bideo lehiaketa amateurra. 1996-97 urteetan grabatuak, VHS formatoan eta gehienez 30 minutuko iraupena duten bideoak aurkeztuko dira. Epea: otsailak 15.
- "Martxoak 8" kartel lehiaketa, Arrasateko Emakume Sailak antolatua. Epea: otsailak 18.
- Gazte Kutxak, urteroko ikasketabidaieen proiektu lehiaketa antolatu du. Bertan Gipuzkoako ikastetxeetan ari diren BBB, IEE, UBI, LH I, LH II, LOGSE Batxilergoa eta unibertsitate mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Epea: martxoak 7.

"Leintz Udal-Euskaltegia" k euskarazko irakasleen lan-poltsa bat sortzeko meritua eta azterketa bidezko lehiaketa irekitzea erabaki du.

Bete beharreko baldintzak: Magisteritza agiriaren, Unibertsitateko lizentziaturaren edo, hala badagokio, Unibertsitateko Diplomaturaren jabe izatea. EGA agiriaren edo baliokide baten jabe izatea. Euskarazko irakasle lanetan gutxienez urtebeteko esperientzia izatea. Eskariak aurkezteko epea Aretxabaletako edo Eskoriatzako Udaletxeetako Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira 1998,02,13ko ordu bata baino lehen. Oinarriak ikusi nahi dituen edonork eskurara izango ditu ondorengo bulego bagusietan (jendearekiko lanorduetan) Aretxabaletako Udaletxea Eskoriatzako Udaletxea Leintz Udal-Euskaltegia

SANTA AGEDAK: Otsailaren 4,5 eta 8an Sta Ageda mutilak ikusiko ditugu herria alaitzen. Otsailaren 5ean eta 8an egingo dute dantzan herriko plazan.

IHAUTERIAK: aurten ihauterietako batzordeak, jai nagusia zapatara (98-02-21) pasatzea erabaki du. Azkenengo urteetan partaidetza behera joan dela eta, aurten nahiz eta asteartean arratsaldez musika eta umeentzako egitaraua eduki, nagusiontzako zapatu iluntzean antolatu da jaiak. Ea gorantz egiten duen ba.

BAKAR-BAKARRIK SENTITZEN DIRENEAN

Mariasun Landa
Asun Balzola-ren irudiak
Anaya Haritza

Gazteago nintzela egunero-egunero ilunabarrean katu bat zuten etxe batera joaten nintzen. Ni sartzerakoan inoiz ere ez zidan kasorik egin eta, askotan ekonomikaren ondoan leihorantz begira aurkitzen nuen. Etxekoandreak esan zidanez geldigeldirik orduak eta orduak sartzen omen zituen. Bakar-bakarrik sentituko ote zen? Gaur gomendatzen dudana istoriaren protagonistaren katua ere horrela sentitzen ei da: triste eta melankoniatsua.

Maider, istoriaren protagonistako bat, bestea Ofelia katua baita, neska gaztea eta alaba bakarra da. Maiderren amak beti izan du antzerkia munduan lana egiteko gogo eta, lanean hasten denean goitik behera aldatuko da Maiderren bizimodua. Ama beti kanpoan eta aitak, bere andrea-ren bizimodu berria dela eta, alde egiten du etxetik, Maider eta Ofelia bakarrik gelditzen direlarik. Bakartasuna. Hau da, Mariasun Landaren liburu honen sentimendurik nabariena. Denok sentitzen gara bakarrik inoiz edo inoiz, eta, denok behar izaten dugu lagun bat gure sentimenduetatik konpartitzeko. Maiderrek Ofelia katua dauka, baina, egun batean, Ofeliak ihes egingo du... Zuk irakurle maitea, ba al duzu lagunik zure penak eta pozak konpartitzeko...

12 urtetik gorakoentzat

Iñaki Agiriano





Argazki hau duela 40 urte Bolibarko ziklista ekipoari ateratakoa da Koruetako jaixetan. Itxura denez mutiko honeik ardura haundiagoa zeukaten argazkian dotore irtetzeko, karrera irabazteko baino.

Txirrindulariak: Juan Inazio Zubia, Jose M^a Agiriano (Karo), Jose Antonio Aranguren (Etxebarri), Santi Eskibel, Jose Inazio Uribarri (Burdintxo) eta Jose Eduardo Zubizarreta dira.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

GOLO GAZTE MODA

Arana kalea, 13
Tfnoa.: 71 42 99

HEMEN ZURE PUBLIZITATEA



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

*Zuri
Garbiketak*

Tfnoa-Faxa: 714845
ESKORIATZA

ESKO Sport



txandalak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futura
txirrindua

Intxaurtueta 5
20540 Eskoriatza
Tel. 71 52 96

TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**